

BEZEROEKIKO HARREMANA

Atal honetan, bezeroekin izango dugun harremana azalduko dugu, atal honi garrantzi handia emango diogu, gure enpresarentzat ditugun bezeroak mantentzea eta berriak lortzea ezinbestekoa delako. Gure ustez, bereroaren iritzia oso garrantzitsua da gure produktua hobetzeko, horregatik, beraien iritziak jasotzeko baliabide bat jarri dugu gure aplikazioan.

Bezero batek aplikazioa erabiltzerako garaian arazoak izaten baditu, gure zerbitzua aplikazio bat denez, bere arazo, iritzi edo iradokizunak guregana iristeko aukera izango du. Hau da, gure webgune eta aplikazioan idatzizko iruzkinak uzteko atal bat egongo da. Izan

ere, bezeroak dituzten arazoak konpontzea guretzat funtsezkoa da. Horrez gain, beraien proposamenak gure zerbitzua hobetzen lagundu ahal diguten pertsonak dira, eta guk hori ondo dakigu. Horregatik, enpresako kide bat beti egongo da iradokizunak irakurri eta baloratzen.



Beti egongo gara gure bezeroei laguntzeko eta entzuteko prest, baina, gurekin komunikatzeko hizkuntza ofiziala euskara izango da nolabait esateko. Gure ustez, hizkuntza zaintzea oso garrantzitsua delako eta honekin erabilera sustatu nahi dugu. Baina, bezero batzuentzat euskaraz idaztea oso zaila izaten bada gaztelaniaz edo ingelesez idazteko aukera izango dute.

Aipatu dugun guzti honekin lortu nahi duguna gure bezeroak eskaintzen dugun zerbitzuarekin gustura egotea da, horrela, gure aplikazioa gende gehiagori zabaltzeko aukera handiak egongo baitira. Hau da, tratu onaren bidez bezero berriak edukitzeko probabilitate handia izango dugu.

Bide batez, lortutako arrakastari esker, gure proiektuan finkatutako xedeak geroz eta lehiakorragoak izatera iritsiko lirateke, eta modu berean, emaitza geroz eta hobeagoak lortuko genituzke.

